

Nola konektatzen da jende berriarekin?

Krisia gainditzen duena biziberrituta ateratzen da, edonork bere larruan frogatutako esperientzia da. Iruñeko Karrikiri euskara elkarte ere horretan ari da. Egoerari adarretatik heldu eta gogoeta Iruñeko euskaldunekin partekatu nahi izan dute. Proiektuak badu ardatz sendorik, badu baliabiderik eta erakargarritasunik. Gainerakoan asmatzea bakarrik falta da.

XABIER LETONA

Argazkia: Josu Santesteban

“EUSKALDUNEN BAT behar dugu umea zaintzeko. Galdetuko dugu inguruan, baina beste nonbaiten ere begiratu behar dugu, denbora gainera dator eta mugitu beharra dago”, galdetu zion kazetari honek duela bospasei urte emazteari afal osteko hizketaldian. “Karrikirin begiratu dezakegu eta hortik hasi”. Esan eta egin. Hori moduan, beste zerbitzu batzuk ere baditu Karrikiri euskara elkarteak.

Bada euskaldun kopuru txukunik Iruñean, 15.000 bat euskaldun, Karrikiriko Reyes Iraolari irakurri berri diodanagatik. Amarauna eskas, ordea, eta armiarma lanetan dihardutenak estu, haria nola ehundu asmatu ezinean. Duela 15 urte sortu zen Karrikiri elkarte Iruñean, Euskal Herrian izaten ari zen herrietako euskara elkarten big-bang emankor haren uhin berantiarretan.

Eta orduko giroaren epelean, Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx-en* aholkuei jarraiki, “Iruñeko euskal komunitatea trinkotzera” abiatu ziren. Egin beharrekoak egin zituzten: lokala, bazkideak, zerbitzu eskaintzak –itzulpenak, pisukide euskaldunak, lan poltsa...– berripapera, denda... Emaizten artean lorpen ugari eskuratu dituzte urte hauek guztietan, baina euskaldunen komunitatea trinkotzetik orduan bezain urrun dira agian.

Krisia

Urtero, irail aldean, elkarte erreferentzia bilakatzen da ehunka



Karrikiriren erreferentzia nagusia da Xabier karrikako euskal produktuen denda.

gazte eta ez horren gazterentzat. Iruñera doaz bizitzera, eta euskaldunekin partekatu nahiko lukete pisua. Esan diete, entzun dute, irakurri dute Karrikirik baduela pisukide euskaldunen elkargune zerbitzua. Erromesaldiak elkarteak Iruñeko Xabier karrikan duen denda-egoitza du helmuga. Urtero 500 bat pertsona hurbiltzen da erreferentzia bila.

Itzulpen zerbitzua eta denda ibiltaria ere badute, baina erreferentzia nagusia Xabier karrikako euskal produktuen denda bilakatu da. Hori guztia lanpostu eta erdirekin eta militante talde sendo bezain ekimentsuari esker.

Baina denboraren higaduraz, urritu da taldea, eta daudenak akituago dira. Krisi hotsak aspaldi ari dira gora-beheran Xabier karrikaren ingurumarian, azken bizpahiru urteetan bai bederen. Baina iazko eguberritan egin zuen eztanda. Par-taidetza krisiari, ekonomi krisia gehitu zitzaion gainera.

Aholkularien laguntzarekin, zegokion AMIA azterketa egin zuten, ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak behar bezala aztertuz. Ohikoa ez den bezala, alor ekonomikoa azkar bideratu dute, bai kudeaketa zorrozuz eta baita lokal baten salmentarekin. “Gainera, hasierako inbertsio garaia gaindi-

Eta Zaldiko eta Karrikiri batuz gero?

Zaldiko Maldiko da Iruñeko euskara elkarte zaharrena. San Fermín-etako euskaldunen txokoa delako ezagutuko dute euskal herritar askok. Bere egoera ere ez da bere historiako indartsuena eta azken urteotan jardunari buruzko erreflexiorik ere egin izan du. Karrikiri eta Mutikho Alaiak peñarekin batera, aurtan ere "Karrika gurea da" egun osoko festa eguna antolatuko dute maiatzaren 31n Udaletxe Plaza, Mercaderes eta Estafeta kalean zehar.

Aurtengoan, gainera, Donibane Lohizuneko Begiraleak elkar-tekoen laguntza izango dute, eta datorren urtean iruindarrak bisita itzultzekotan dira. Azken urteotan ez da festarik antolatu, eta aurtan elkarte biek berearenak eta bi emango dituzte egun horretan giro ederra sortzeko.

Elkarte bien egoitzak Alde Zaharrean dira. Zaldiko Maldikok batez ere kultur ekitaldiak antolatzan ditu, badu elkarte gastronomikoa, bazkideak, bulegoetarako tokia, historia... Karrikirik ere baz-

kide kopuru esanguratsua du, denda, zerbitzu eskaintzak, aldizkaria eta, garrantzitsuena, antolaketak eta militante talde sendoa.

Badakit talde bakoitzak bere izaera eta historia duela, badakit kanpotik egindako hausnarketa dela, ezjakinaren ausardiaz egindakoa ere izan litekeela, baina galdera berez dator: eta zergatik ez dute bat egiten? Eta badakit, ondo jakin ere, euskaldun askoren pozgarri litzatekeela eta abagune berri bati ekiteko aukera ere bai.

tu ondoren, denda ere hasi da errentagarri izaten —dio Juan Luis Etxaburu *Ondarru*, elkarteko lehendakariak—. Eta hala ere, aurrera begira ditugun ideiekin, finantzazio handiagoa ere beharko dugu".

Hausnarketa talde bat ere eratu zen eta *focus* prozeduraren bidez elkar-tearen egungo azterketa zorrotza egin da urtearen hasieran. Diagnostikoa ere gogorra izan da: arazorik handiena jende berria erakartzea da. Bada bazkide talde txiki baina trinkoa, bada ideiarik, bada euskaldunik, bada lanik, bada baliabiderik... baina ez da transmisiorako indarrik, erreleborik, gazteagoen segidarik... Edo erakargarritasunik esango luke gupidagabeenak. Edo maltzurrenak.

Hausnarketa gizarteratzeko ordua

AMIA eta *focus*-ak bideratuta, emaitza eraginkorren bila abiatu zen Karrikiri. Martxoko *Karrika* aldizkaria ohiko testuez hutsik eta marrazki eta lelo batekin agertu zen: "Zu ere giltzarri". Dendan eta web gunean ere (www.karrikiri.org) marrazki eta

lelo bera jarri ziren. Publizitate kanpaina eraginkorra izan zen eta euskaldun asko ari zen galdezka ea zer demontre gertatzen zen.

Apirileko zenbakiak eman zuen argia eta kanpainako bozeramaileak, Reyes Iraolak, arazoaren nondik norakoak barreiatu zituen ahoan bilorik gabe.

Horra hor beste kontua. Nola eman krisi baten berri? Sakratua da moldea eta mezua, "ez uxatu, erakarri" izango da aholkulariaren mezua. Kontua da orain arte azal dutakoarekin samur uler litekeela gertatzen dena, ez da berria ez euskara elkar-teetan ez bestelako gizarte mugimenduetan ere. Bizitza bera da.

Karrikiri sortu zenean, esperantza ugari barreiatu ziren Iruñeko euskaldun askoren artean. Elkarte-ko batzuk, Bilboko Kafe Antzokiaren gisakoa ere mamitzekotan izan ziren duela hamarren bat urte. Urtero 100 euro jartzen duten 160 bazkide biltzen ditu elkar-teak, denda errentagarria da, beharrak nahi bestekoak...

Eta orduan? Azalpen ugari egon litezke: elkar-tea beraren akats eta ahuldadeak; gizarte mugimenduen ahultzea ekarri duten aldaketa esanguratsuak izan dira azken 15-20 urteotan; epe berean, nabarrismoaren jarrera instituzionala are eta gehiago korapilatu eta okertu da euskarari dagokionez; gizarte mugimenduaren kaltetan eskolari utzi zaio berreuskalduntze prozesuaren ardura...

Seguruenik, horiek eta beste hausnarketa ugari ere aterako dira maiatzaren 23an Iruñeko Joakin Beunza kaleko Euskal Kultur mintegian. Iruñeko euskaldun guztiak daude gonbidatuak bertara eta goiz osoa eskainiko zaio hausnarrari. Karrikirikoek, dena den, argi adierazi dute bertaratuko direnek, pentsatzeaz gain, elkar-tearekin beste maila bateko konpromisoa hartzea ere nahiko luketela. Garunak estutzea eta lanerako gogoa, beraz, norberak eraman behar ditu, hamarretakoa Karrikiriren kontura. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure
artean!
euskaraz



BFA
DFB